

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### HEZKUNTZA ETA KULTURA SAILA

**Udalaren Hezkuntza Zerbitzuaren laguntzen deialdiaren berriazko oinarri arautzaileak aldatzea, Vitoria-Gasteizko ikastetxeetako ikasleen guraso elkarteek (IGE) 2019-2020 ikasturterako antolatzen dituzten eskolaz kanpoko jarduerentzat eta jarduera osagarrientzat xedatutakoak**

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2020ko maiatzaren 15ean burututako ohiko bilkuran, aldatzea onartu zuen Udal Hezkuntza Zerbitzuak Vitoria-Gasteizko ikastetxeetako ikasleen guraso elkarteek (IGE) 2019-2020 ikasturterako antolatzen dituzten eskolaz kanpoko jarduerentzako nahiz jarduera osagarrientzako laguntzetarako deialdia arautzen duten berriazko oinarriak.

Ebazpen horrek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke berorren aurka Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Hala ere, alde zuzenetik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke aurkaratzen den egintza eman zuen organoari, hilabeteko epean, jakinarazten edo argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita. Kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jarri berraztertze errekurtsoa berriaz edo ustez ebatzi arte.

Epe hori igaro eta gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epea, egintza berriazkoa bada, bi hilabetekoa izango da, jakinarazpena edo argitalpena egin eta hurrengo egunetik kontatzen hasita; edo, egintza berriazkoa ez bada, edozein unetan jarri ahalko da, berriazko araudiaren arabera administrazio-isiltasunaren ondorioak sortzen dituen hurrengo egunetik aurrera.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, horiek argitaratu egiten dira, denek jakin dezaten.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko maiatzaren 26an

*Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi eskuordetua*  
**ESTÍBALIZ CANTO LLORENTE**

## **12. lerroa. Hezkuntza. 12. lerroaren berriazko oinarriak – Vitoria-Gasteizko ikastetxeetako ikasleen guraso elkarteek (IGE) 2019-2020 ikasturtean antolatzen dituzten eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak**

Tokiko Gobernu Batzordeak Vitoria-Gasteizko Udalaren 2019. urterako diru-laguntzen deialdien oinarri arautzaile orokorrak onartu zituen 2018ko abenduaren 28an. Oinarri horiek ALHAOn argitaratu ziren 2019ko otsailaren 13an (19 zk.), eta [www.vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak](http://www.vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak) udal web-orrian eta herritarren arretarako bulegoetan kontsultatu ahal dira.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko maiatzaren 24an burututako ohiko bilkuran, onartu egin ziren Udalaren Hezkuntza Zerbitzuaren laguntzen deialdi publikoa eta horien berriazko oinarri arautzaileak Vitoria-Gasteizko ikastetxeetako ikasleen guraso elkarteek (IGE) 2019-2020 ikasturterako antolatutako eskolaz kanpoko jarduera zein jarduera osagarrientzat.

COVID-19ak kutsatzea murrizteko hartutako neurriak direla-eta, interesgarria ikusi da aipatu deialdiaren berriazko oinarriak aldatzea, osasun-krisiak hezkuntza eremuan Vitoria-Gasteizko ikastetxeetako ikasleengan eta euren familiengan sortu ahal izan dituzten beharretan laguntza emateko IGEak burutzen aritu daitezkeen jarduerak sustatzeari begira. Aldaketa diru-laguntzaren xedea, xede horretarako jardueren gauzatze-aldia eta aipatu deialdiko diru-laguntza justifikatzeko epea ezartzen dituzten berriazko oinarrien klausulei aplikatzen da. Jarraian azaltzen diren klausulak, beraz, aldatu egiten dira, adierazten den moduan xedatzen direlarik. Aipatzen ez diren gainerako berriazko oinarrien edukia 2019ko maiatzaren 24ko Tokiko Gobernu Batzarraren ohiko bilkuran onartu eta 2019ko ekaineko 12ko ALHAOn (68 zk.) argitaratu zen bera izaten jarraitzen du.

### **3. Deialdiaren xedea**

Hauxe da diru-laguntza deialdi honen xedea: ikasleen guraso elkarteek (IGE) 2019-2020 ikasturterako ikasleentzat eta familientzat antolatzen dituzten eskolaz kanpoko jarduerak eta ikasleei zuzendutako jarduera osagarriak eta, halaber, COVID-19ak hezkuntza eremuan eragindako osasun-krisiak Vitoria-Gasteizko ikastetxeetako ikasleengan eta euren familiengan sortu ahal izan dituen beharretan laguntza emateko elkarte horiek burutzen aritu daitezkeen jarduerak laguntzea, horietatik eratorritako gastuen finantzaketan parte hartuz.

IGeen jarduera sustatuz, elkarte horiek hezkuntzan eta, era nabarmenagoan, ikasleen prestakuntza integralean eta, ondorioz, eskola-arrakastan esku-hartze handiagoa izatea bultzatu nahi da.

### **5. Baliabide ekonomikoak**

Hezkuntza eta Kirol Sailak (Hezkuntza Zerbitzua) 126.000,00 euroko gehieneko kreditua zuzentzen du 2019-2020 ikasturtearen deialdirako, honela banatuta:

50.400,00 euroko gehieneko kreditua 2019ko irailaren 2tik abenduaren 31ra bitartean burutzen diren jardueretarako, 2019rako udal-aurrekontuan Hezkuntza eta Kirol Sailari dagokion 2319 03 3261 48010 aurrekontu-sailaren kargura.

75.600,00 euroko gehieneko kreditua 2020ko urtarrilaren 1etik uztailaren 31ra bitartean burutzen diren jardueretarako, betiere 2020ko udal-aurrekontuan kreditu egoki eta nahikoa baldin bada.

### **6. Diru-laguntzaren xedeko jarduerak**

Diru-laguntzak IGEEK 2019ko irailaren 2tik 2020ko uztailaren 31ra bitartean Vitoria-Gasteizko ikastetxeetan antolatzen dituzten eskolaz kanpoko jarduerentzat eta jarduera osagarrientzat hala nola COVID-19ak hezkuntza eremuan eragindako osasun-krisiaren kudeaketan Vitoria-Gasteizko ikastetxeetako ikasleengan eta euren familiengan sortu izan diren beharretan laguntzeko burutzen dituzten bestelako jarduerentzat dira.

### **13. Diru-laguntzaren ordainketa eta justifikatzeko modua**

13.1 Diru-laguntzaren ordainketa: Udalak bi ordainketetan emango du diru-laguntza:

– Lehenengoa, 2019ko aurrekontuaren kargura, 2019ko irailaren 2tik abenduaren 31ra bitarteko aldirako emandako diru-laguntzari dagokiona.

– Bigarrena, 2020ko aurrekontuaren kargura, 2020ko urtarrilaren 1etik uztailearen 31ra bitarteko aldirako emandako diru-laguntzari dagokiona, zeina 2020rako udal-aurrekontuan xede horretarako kreditu egoki eta nahikoa egoteari loturik egongo baita.

13.2 Diru-laguntza justifikatzeko epea: 2019ko irailetik abendura bitarteko aldirako eta 2020ko urtarrietik uztaileira bitarteko aldirako emandako diru-laguntzaren justifikazioa batera eta aldi batean aurkeztuko da. Gastuen justifikazioa aurkezteko epea 2020ko irailaren 30ean amaituko da.